## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### 603

271/2004 DEKRETUA, abenduaren 28koa, Arabako Errioxako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onartzen duena.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen babesean idatzi eta bideratutakoak, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onartu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren, otsailaren 12an.

Artezpide horietan, lurraldearen zatiko planak, horien artean Arabako Errioxako Eremu Funtzionalekoa, idazteko esparruak ezartzen dira.

Aipatutako Legearen 2. eta 11. artikuluen arabera, lurraldearen zatiko planak nahitaez landu beharreko lurralde-antolamendurako tresnak dira. Ildo horretatik, artezpide horien 22. kapituluko 7. paragrafoan, aplikatu beharreko arauei buruzkoan, dioenez, oso garrantzitsua da Lurraldearen Zatiko Planak lehenbailehen formulatzea, aipatutako artezpideen osagarriak izango diren hirigintza- eta lurralde-irizpideak gaineratzeko eta, horrela, udal-esparruko planak doitasun handiagoaz garatu eta Lurraldearen Arloko Planen formulazioan lurralde-koherentzia handiagoa ziurtatu ahal izateko.

2.– Arabako Errioxako Eremu Funtzionalari dagokionez, prozesu horri ekiteko, 1998ko urtarrilaren 14an lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten orduko Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Arabako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro Sailak.

Lurraldearen Zatiko Plan hau Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 13. artikuluan jasotako formulazio- eta bideratze-prozesuaren emaitza da. Prozesu horrek aurrerapenaren eta hasierako, behin-behineko eta behin betiko onarpenaren faseak bildu ditu, eta toki-korporazioek eta hainbat sailek, bai autonomikok bai foralek, hartu dute parte horietan.

3.– Planaren edukiak Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 12. artikuluan ezarritakoari erantzuten dio. Aipatutako artikuluak lurraldearen zatiko planek bildu behar dituzten zehaztapenak jasotzen ditu. Planak, gainera, jarduteko hainbat neurri ezarri eta beste hainbeste proposamen egiten ditu, Arabako Errioxaren erabateko antolamendua lortzea helburu nagusi dute-

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### 603

DECRETO 271/2004, de 28 de diciembre, por el que se aprueba definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa).

1.– Las Directrices de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, redactadas y tramitadas al amparo de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco fueron aprobadas definitivamente mediante Decreto 28/1997, de 11 de febrero y publicadas en el Boletín Oficial del País Vasco el 12 de febrero.

En dichas Directrices se establecen los ámbitos para la redacción de los Planes Territoriales Parciales entre los que se encuentra el Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa).

De conformidad con los artículos 2 y 11 de la referida Ley, los Planes Territoriales Parciales son instrumentos de Ordenación Territorial de necesaria elaboración. En este sentido, el apartado 7 del capitulo 22 de las Directrices, relativo a las Normas de Aplicación señala que se considera muy importante proceder a la formulación, lo antes posible, de los Planes Territoriales Parciales con objeto de aportar criterios urbanísticos y territoriales complementarios a las referidas Directrices que permitan un más ajustado desarrollo de los planes de ámbito municipal y que garanticen una mayor coherencia territorial en la formulación de los Planes Territoriales Sectoriales.

2.– En lo relativo al Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa) este proceso se inició con la suscripción de un Convenio de Cooperación de fecha 14 de enero de 1998 entre los entonces denominados Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco y Departamento de Urbanismo, Arquitectura y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava.

El presente Plan Territorial Parcial se configura como el resultado de un dilatado proceso de formulación y tramitación previsto en el artículo 13 de la Ley de Ordenación del Territorio, con sus correspondientes fases de Avance, Aprobación Inicial, Provisional y Definitiva en el que han participado las corporaciones locales y los diferentes Departamentos, tanto autonómicos como forales.

3.– El contenido del Plan da respuesta al artículo 12 de la Ley de Ordenación del Territorio que recoge las determinaciones que deben contener los Planes Territoriales Parciales. El Plan establece además una serie de medidas y realiza una serie de propuestas de actuación que buscan, como objetivo primordial, el de conseguir una ordenación integral de la Rioja Alavesa, propician-

nak, esparru horretan zentzua hartzen duen guztia eskualdearen esparrura eramanez eta, era berean, udal-jarduna ahalbidetuz, bere autonomiatik abiatuta.

Arabako Errioxako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Planak ondoko udal-mugape hauek barne hartzen ditu: Bilar, Elciego, Eskuernaga, Kripan, Labastida, Laguardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Mañueta, Moreda de Álava, Navaridas, Oyón-Oion, Samaniego eta Yécora. Lurraldearen Zatiko Planaren helburu nagusia zona hirugarren sektoreko bihurtzea da, zentzu zabalenean. Horretarako, demografia, bizitegiak eta ekipamenduak bultzatu eta oinarrizko sektore ekonomikoak finkatuko dira. Gainera, 16 urteko denbora-mugan sortu behar diren lurralde-eragineko ekintzak koordinatuko dira, eremu funtzionalaren garapen iraunkorra bermatzearren.

Planak eremu funtzionalaren abagune handiak sektore turistikoan eta baliabide natural, kultural, etnografiko, etab.en ondoriozko ekonomietan finkatzen ditu eta lurralde-eredu multipolarra planteatzen du. Bertan, hirigune nagusiak Labastida, Laguardia eta Oyón-Oion izango lirateke.

4.– Ingurune fisikoari dagokionez, funtsezkotzat jotzen du ingurune naturalari balioa ematea. Beraz, dagoeneko deklaratutako espazio naturalez (Laguardiako urmaelen guneko biotopo babestua), interes naturalistikoko eremuez (Kripan eta Navaridasko artadiak, Dueñasko pinudia eta Lasernako abariztia) eta Natura 2000 Sarean sartzeko proposatutako espazioez (Kantauriko mendizerra eta Ebro ibaia) gain, babesa ere merezi duten interes naturaleko zonatzat identifikatzen ditu Lezako erkameztia eta artadiak, Lapuebla de Labarcako Esperal eremua, Labastidako ibar-basoak eta Navaridas, Cuatro Encinas, San Gregorio, Aguarchal eta Elciegoko urmaelak. Era berean, eremu funtzionalaren zatirik handienean mahastizaintza eta ardogintzako azpisektoreari lotutako nekazaritza-joera aintzatesten du eta mahastiek hartutako nekazaritza-azalera erabilgarriari eustea proposatzen du, berori galtzea edo beste erabilera batzuekin ordezkatzea saihesteko.

5.– Komunikabide-azpiegiturei dagokienez, hirisaihesbideetan jarduteko beharra planteatzen du Labastida, Laguardia eta Oyón-Oiongo hiriguneetan. Planean funtsezko elementua da ekipamendu-sistema, bai zerbitzu publikoetan bai eta zerbitzu orokorragoetan, merkataritzakoetan eta aisialdikoetan. Arlo horretako proposamenak hiru hirigune nagusietan oinarritzen dira. Hala, Laguardian eskualde-mailako gune bat sortzeko proposamena nabarmentzen da (dentsitate txikiko bizitegietarako jardun integratua, eskaintza komertziala, aisialdikoa, zuzkidurakoa eta kulturala barne direla).

6.– Biztanleriari dagokionez, guztira 12.347 biztanle eta gehienez 5.527 etxebizitza lortu nahi dira 2019. urterako, bizitegi berrira zuzendutako eraikuntza berriaren %10 etxebizitza babestuari egokituko zaion moduan (hiru hirigune nagusietan banatuta: %40 Oyón-Oionen, %30 Labastidan eta beste %30 Laguardian).

do la comarcalización de todo aquello que adquiere sentido en este marco y posibilitando, a su vez, la actuación municipal, desde su propia autonomía.

El Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa), que comprende los términos municipales de Baños de Ebro, Kripan, Elciego, Elvillar, Labastida, Laguardia, Lanciego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda de Álava, Navaridas, Oyón-Oion, Samaniego, Villabuena de Álava y Yécora, tiene como objetivo principal la terciarización de la zona en su sentido más amplio, pasando por la potenciación demográfica, residencial, y equipamental, y por la consolidación de los sectores económicos básicos, coordinando las acciones con incidencia territorial que se deben de producir en un horizonte temporal de 16 años para garantizar el desarrollo sostenible del Área Funcional.

El Plan reconoce las grandes bazas del Área Funcional en el sector turístico y en las economías derivadas de los recursos naturales, culturales, etnográficos, etc., y plantea un modelo territorial multipolar en el que los municipios de Labastida, Laguardia y Oyón-Oion se configuran como núcleos cabecera.

4.– En cuanto al medio físico, considera esencial la puesta en valor del medio natural por lo que, además de recoger los Espacios Naturales ya declarados (Biotopo Protegido del Complejo Lagunar de Laguardia), las Áreas de Interés Naturalístico (Carrascales de Kripan y Navaridas, el Pinar de Dueñas y el Coscojal de Laserna) y los espacios propuestos para integrar la Red Natura 2000 (Sierra de Cantabria y Río Ebro), identifica como zonas de interés natural merecedoras también de protección el Quejigal y los Carrascales de Leza, el Área del Esperal en Lapuebla de Labarca, los Sotos de Labastida y las lagunas de Navaridas, de Cuatro Encinas y San Gregorio, de El Aguarchal, y de Elciego. Así mismo reconoce la vocación agrícola, ligada al subsector vitivinícola, de la mayor parte de la superficie del Área Funcional, proponiendo el mantenimiento de la superficie agraria útil ocupada por viñedos, y evitando su pérdida o sustitución por otros usos.

5.– Respecto a las infraestructuras de comunicaciones, plantea la necesidad de actuación en materia de variantes urbanas en los núcleos de Labastida, Laguardia, y Oyón-Oion. Elemento clave del Plan es el sistema de equipamientos, tanto en materia de servicios públicos como de servicios más generales, comerciales y de ocio, con propuestas que se centran en los tres núcleos cabecera. A este respecto destaca la creación de un enclave de escala comarcal en Laguardia (operación integrada de residencia de baja densidad, oferta comercial y de ocio y dotacional-cultural).

6.– En materia de población, se pretende alcanzar un total de 12.347 habitantes y una cifra máxima de 5.527 viviendas en el año 2019, correspondiendo a vivienda protegida un 10% de la nueva construcción destinada a primera residencia, distribuida en las tres cabeceras: un 40% en Oyon-Oion, un 30% en Labastida y otro

Era berean, gune historiko eta hirigune interesgarriak babestu eta zaharberritu nahi dira Salinillas de Buradón, Labastida, Laguardia, Elciego, Bilar, Labrazan eta Oyón-Oionen.

7.– Eremu funtzionalaren industria-lehiakortasuna bermatzeko asmoz, lurzoru bideragarri eta eskuragarriaren eskaintzarako guztira 160 eta 250 ha bitarteko azalera planteatzen da Lurraldearen Zatiko Planaren denbora-mugan. Horretarako, Oyón-Oionen eta Casablanca-Campillarren egun dauden jarduera produktiboko guneak finkatu eta zabaltzea eta, Labastidan, proposatutako bide berriei lotutako ezarpen berri bat egitea proposatzen da.

8.– Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan mugatutako lurralde-esparruaren barruan, Plan honek, gainera, lurraldearen arloko planak integratzen ditu, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek bai Arabako Foru Aldundiko sailek sustatutakoak. Batik bat, lurraldearen arloko plan hauek kontuan hartu dira:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorra.

– Arabako Lurralde Historikoko Errepideen Plan Integrala.

– EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde Mediterraneoa).

– EAEko Inguru Hezeak Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Etxebizitzen Sustapen Publikorako Lurzorua Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Nekazaritza, Basozaintza eta Natura Ingurunea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

– EAEko Kultura-ondarea Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

9.– Planak Antolamendu Arauak gaineratzen ditu. Bertan, Planak izaera arautzailea ematen dien xedapen eta proposamena guztiak biltzen dira, Dekretu honen eranskin gisa jasotakoak, argitara daitezen.

Horren indarrez, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko abenduaren 28an egindako bilkuran aldez aurretik eztabaidatu eta onarturik,

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Arabako Errioxako Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betiko onartzen da. Planaren Antolamendu Arauak eranskin gisa gaineratu zaizkio Dekretu honi.

30% en Laguardia). Así mismo se aboga por la protección y restauración de los centros históricos y cascos urbanos de interés en Salinillas de Buradón, Labastida, Laguardia, Elciego, Lanciego, Elvillar, Labraza y Oyón-Oion.

7.– Con el objeto de garantizar la competitividad del Área Funcional en materia industrial, se plantea un dimensionado global para la oferta de suelo viable y disponible en el horizonte del Plan Territorial Parcial de 160 a 250 Has. A tal efecto se propone la consolidación y ampliación de los enclaves de actividad productiva existentes en Oyón-Oion, y Casablanca-El Campillar, así como una nueva implantación en Labastida, ligada al nuevo viario propuesto.

8.– Dentro del marco territorial definido por las Directrices de Ordenación del Territorio, este Plan realiza, además, un ejercicio de integración de los diferentes Planes Territoriales Sectoriales promovidos tanto por los diferentes Departamentos de las Administración General de la Comunidad Autónoma como por los Departamentos de la Diputación Foral de Álava. Principalmente se han tenido en cuenta los siguientes Planes Territoriales Sectoriales:

– Plan General de Carreteras del País Vasco

– Plan Integral de Carreteras de Álava.

– Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos (Vertiente Mediterránea) de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.

– Plan Territorial de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas y de Equipamientos Comerciales de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Promoción Pública de Vivienda de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la CAPV.

– Plan Territorial Sectorial de Patrimonio Cultural de la CAPV.

9.– El Plan incorpora las Normas de Ordenación, en el que se recogen el conjunto de las disposiciones y propuestas a las que el Plan les confiere carácter normativo y que se acompañan como Anexo al presente Decreto para su publicación.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de diciembre de 2004,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Se aprueba definitivamente el Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa) cuyas Normas de Ordenación se incluyen como Anexo al presente Decreto.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa.–*** Lurraldearen Arloko Planak formulatu eta aldatzeko dokumentuak, Plan hau indarrean jartzeko garaian hasierako onarpenik jaso ez badute, Plan honetan bildutako zehaztapenetara egokitu beharko dira, Arabako Errioxako Eremu Funtzionalari dagokionean.

Nolanahi ere, Lurraldearen Zatiko Plan hau indarrean jartzen den garaian indarrean dauden Lurraldearen Arloko Planak honako Plan honetan xedatutakora egokitu beharko dira, Lurraldearen Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarrian jasotakoari dagokionean salbu.

***Bigarrena.–*** Arau subsidiarioak eta hiri-lurzorua mugatzeko proiektuak formulatu, berrazterturu edo aldatzeko prozesuetan dauden Arabako Errioxako Eremu Funtzionaleko udalerrien hirigintza-dokumentuak, Plan hau indarrean jartzeko garaian hasierako onarpenik jaso ez badute, Plan honetan bildutako zehaztapenetara egokitu beharko dira.

Nolanahi ere, indarrean dagoen hiri-plangintza orokorra Plan honetan xedatutakora egokitu beharko da, berori indarrean jartzen denetik bi urteko epean.

AMAIERAKO XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hilabetera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko abenduaren 28an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen da aipaturiko eranskina**

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera.–*** Los documentos de formulación y modificación de los Planes Territoriales Sectoriales que no hayan sido aprobados inicialmente en el momento de la entrada en vigor de este Plan, deberán adaptarse a las determinaciones contenidas en éste en lo que afecten al Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa).

En todo caso, los Planes Territoriales Sectoriales vigentes a la entrada en vigor de este Plan Territorial Parcial se adaptarán a lo dispuesto en el mismo con excepción de lo previsto en la Disposición Adicional Cuarta de la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio.

***Segunda.–*** Los documentos urbanísticos de los municipios pertenecientes al Área Funcional de Laguardia (Rioja Alavesa) inmersos en procesos de formulación, revisión o modificación de Normas Subsidiarias y Proyectos de Delimitación de Suelo Urbano que no hayan sido aprobados inicialmente en el momento de la entrada en vigor de este Plan, deberán adaptarse a las determinaciones contenidas en éste.

En todo caso, el planeamiento urbanístico general municipal vigente deberá de adaptarse a lo dispuesto en este Plan en el plazo de dos años a contar desde su entrada en vigor.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al mes de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

**En Suplemento aparte se publica el anexo que se cita**